



IDEIAREN · DESKRIBAPENA



# DRESS APP

PIONIRA



# IDEIA

**Helburu bezala egunerokoa erraztuko digun armairu bat sortzea izan da. Proiektu honetan, armairuan ditugun arropak erabaki ahalko ditugu aplikazio baten bidez, hau da; armairuan barruan ditugun arropa, zapatila eta konplementu guztiak adieraziko dizkigu mugikor /tablet edota ordenagailu batean deskargatu dugun aplikazio batek. Honen bidez, jantzeko garaian, aplikazioa ireki eta datu batzuk emanaz, dituzun arropa / zapata eta konplementuen aukera posibleak emango dizkizu. Adibidez: eguraldi txarra eginez gero, eguraldia horretarako dituzun aukerak emango dizkizu (xira bat, euritako zapatak, praka luzeak...).**

**Guk proiektu hau aukeratu dugu, gure egunerokoa arropa aukeratzea, izaten dugun zailtasun handienetako bat izaten delako, azken finean arropa asko duzun armairu batean aukeratzea zer jantziko duzun ez baita hain erreza. Ideia honen bidez, lehenik eta behin, jantzeko garaian, denbora asko aurreztuko genuke. Horretaz gain, arropa konbinatzeko erraztasun gehiago izango genuke eta armairuan dugun arropa guztia erabiltzeko aukera izango genuke, batzuetan hainbeste arropa izanik, ez dugulako dena erabiltzen.**

